

Galdos: «Ingurugiro ikerketa ez da egin pasabidetik atera ez garelako»

Billabonan autobidean «legez kanpoko ezer» egin ez dela esan zuen epaitegian

Eli Galdos eta Roman Sudupek epailearen aurrean deklaratu zuten atzo Autobiaren Kontrako Taldeek Billabonako lanetan izaniko aldaketaz «ingurugiro ikerketarik ez egitegatik» jarritako kereila dela eta. Galdosek prozedura legezkoa izan dela esan zuen: «Eskualde horren ikerketa 1989an egin zen eta horrek gaur balio du, ez baikara pasaleku horretatik irten».

JOSE MARI PASTOR / DONOSTIA

Gipuzkoako Diputatu nagusiak bere iritzia adierazi zuen Irurtzun-Andoain autobideak Billabona aldean izan dituen aldatetek sortutako auziaz: «Ziur nago ez duguna legez kanpoko ezer egin. Alde horri buruzko ingurugiro ikerketa 1989ko azaroan egin zen. Ez zen beste deklaraziorik behar, guk ez dugulako eskualde hori aldatu eta ez garelako bertan ezartzen zen pasalekutik irten», esan zuen Galdosek.

Galdosekin batera Roman Sudupe Garraio diputatuak deklaratu zuen Francisco Andreu epailearen aurrean. Autobiaren Kontrako Taldeek bi agintari hauen eta Eduardo Laborde Billabonako alkatearen kontrako kereila kriminala jarri zuten uszteko prebarikazio eta delitu ekologikoagatik.

Billabonan zubibide bat egiteko zen Gipuzkoa eta Nafarroa lotuko dituen autobideko lanetan baina bertako udalak obra honen



Galdos eta Sudupe epaitegitik irteteko unean.

GILLENEA

kontrako errekurtsio kontentzioso administratiboa ezarri zuen ingurugiroari kalte handia eragiten ziola argudiatuz. Diputazioak zati hori aldatu zuen orduan lanak Amasamenditik eginez. Autobiaren Kontrako Taldeek erakundeen jokaera salatu zuten ez baitzen ikerketarik egin aldaketak ingurugiro arloan izan zezakeen eraginaz.

INGURUGIROA HOBETZEKO ALDAKETA «Ingurugiro eraginari buruzko beste deklaraziorik ez zen behar», be-

rreratsi zuen Galdosek, «Billabonako Udala eta gure teknikariak ados egon direlako». Diputatu nagusia herri horretako Udalaren onespenean oinarritu zen segitutako prozedura erabat legezkoa izan dela argudiatzeko: «Billabonako udalak errekurtsioa jarri zuen zubibideak ingurugiroan eragin handia zuelakoan. Guk proiektua erabat onarturik genuen eta zubibidea eraikitzen has gitezkeen, baina hau egin beharrean udalarekin arazoa konpontzen saiatu gara, eta hala egin dugu, kontu handiz eta irizpide tek-


✓ «Pepeledoena izango zatekeen aurreko proiektuaren onspena edukita beste saltsa batzuetan sartzea onerako izan ez balitz».

nikoei zehatz-mehatz segituz», erantsi zuen.

Galdosen arabera, Billabonako Udala eta beste bizpahiru jabe ziren demandante nagusiak eta emandako irtenbidearekin bat etortzeak agerian utzi du trazaketaren hobekuntza: «Ziur gaude lehen egindako ingurugiro deklarazioak aldaketa honetarako balio duela. Udalak errekurtsioa erretiratu egin du. Pepeledoena izango zatekeen aurreko proiektuaren onspena edukita beste saltsa batzuetan sartzea onerako izan ez balitz».

Diputatu nagusiak kereilak aurrera egingo ez duen esperantzak azaldu zituen, «motiborik ez dagoelako». Galdos ironiaz mintzatu zen kereila bultzatu duten taldeei buruz: «Autobide honen denontzako karrilak baditu, eta haiantzako ere bai».

Diputazioak ezer defenditzeko ez daukala eman zuen aditzera bertako buruak, beraren agerraldia «duda batzuk» argitzeko bestetarako izan ez zela gaineratuz. Agintaria bide honetan segitzeko prest agertu zen: «Gauzak argitzera etorri behar badugu, etorri egingo gara, eta bueltatu behar badugu, bueltatu ere egingo gara. Ez gara geldituko lan hau normaldu arte».



Jacques Valade.

OLALDE

gitzen zein aterabide babesten duten AHTri buruz. Lerroen artean iduri Akizetik Iruneraino bidea onar lezaketela eta trazaketa berria gaitzesten dutela.

Akitaniako sozialistek gogor salatu dute Valade lehendakariaren jarrera

L. ETXEZAHARRETA / BAIONA

Jean Louis Carrerek, Akitaniako Erregioko kontseilari sozialisten taldeko lehendakaria denak, Jacques Valade Akitaniako lehendakariaren jarrera AHTri buruz gogorki salatu zuen atzo bere taldearen izenean. Zioenez, «premiatzeko da gure erregioko kultur eta ekonomi garapena ingurugiro eta ohituren errespetuan egitea, AHTa baliatzeke orde bere burua vedette bezala jartzeko».

Talde ekologista eta ingurugiroaren defentsan ari diren Koordinazioa eta Courtade Mugerreko auzapezak egindako batzordea ondoren, sozialistek hitza hartu dute. Joan zen larunba-

tean Arrangoitzen Courtadek bildu RPR eta UDFko hautetsi ostearren AHTren aurkako erreakzio batua ikusi ondoren, argi zen PSk ere hitza hartu behar zuela.

RPR edo UDFko hautetsiak bezala azken urte hauetan PS azpiegitura nagusien alde jarria zen, izan dadin Somporteko tunela edo Abiadura Handiko Trenna. RPRkoa den Valaderen jarrera gaitzetsiz, Jaurlaritzako politikaren eta bide beretik Ardanzen deklarapenen aurka jarri dira.

«JENDEAREN PROTESTA ZUZENA» «AHTren dossierra nahasketa handiengan tratatua izan da. Jendearen protesta zuzena sortu du eta Akitaniari

hondamen ondorioak eman dizkio» esan du Carrerek eta «Aki-ze-Espainia zatian Jaurlaritzarekin hala-hola egin dira konpromezuak, prozedura normaletarik kanpo».

Valaderen jarrera berriari, Arrangoitzen agertu zuena, trufa egin diote PSkoek: «Bat-batean atzera egiten du eta Gobernuak jarri AHTrako lehentasuna Toursetik Akizerainokoa, Tours eta Bordeleren artera jaisten du». Bere lanbidea gaitzetsi dute: «Ezin onetsizko lanbidea erabili du, AHTren bide berriaren ikerketa sekretuan eginez eta hautetsi edo jendeak mesprezatuz».

Sozialisten deklarapenak RPRkikako kontu garbiketa bat dirudi. Ez dute beren agirian ar-

LABURREAN

IRAKASLE

erdaldunak ikastola transferituentzat

Arabako ikastola transferituetako sindikatuen eta Administrazioaren arteko atzoko bileran Gobernuak enpresa batzordeari jakinarazion ikastola hauek «beste ikastetxe publikoek bezala» jardungo dutela, eta beraz, zentrootan irakasle erdaldunak sartuko dituztela. Sindikatuek ikastola hauek «berezitatzat» hartzea eskatu zuten, baina kontua «negoziazarria ez» dela esan zuen Hezkuntza Sailak ●

RENFEREkin

bildu zen atzo Borderias

Jose Ignacio Lopez Borderias Nafarroako Gobernuko Herrilan kontseilaria atzo bildu zen Madrilren Renferko arduradunekin Iruñea-Madril ibilbidea egiten duen trenaren iraupena lortzeko. Bere helburua «'Estrella' gaueko zerbitzuak Nafarroarako beharrezkoa dela eta horren komenigarritasuna transmititzea» dela azaldu zuen Borderiasek berak ●

KUTSADURA maila

gainditu zuen enpresan kateatu

Eki talde ekologistako kideak Barakaldoko Rontalde enpresako ateetan kateatu ziren atzo, hilaren 4ean industria honek onartutako kutsadura maila gainditu izana salatzen. Sufre oxidozko kutsadura maila altuak arazoak eragin ziren Barakaldoko auzokideei eta zazpi lagun ospitaleratu behar izan zituzten ●

ZABORTEGIA

kudeatzen duen enpresa salatua

HB salaketa partikular modura aurkeztuko da Larrabetzuko (Bizkaia) zabortegia kudeatzeaz arduratzen den Conten S.A. enpresaren aurkako kereila kriminalean. HBk Bizkaiko udalerrri honetako alkatearen kontra ere egingo du, ustezko prebarikazioagatik. Conten «historia luze eta zorigaitzoko zabortegia» bezala definitu zuen Iñaki Antiguedad talde abertzaleko parlamentariak ●